



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Bizkaiak txirrindularientzako "299 kilometro" bide ditu daborduko

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordea gaur goizean alkartu da, lau agerraldi eskari lantzeko, guziak be Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatutakoak. Horreetako batean, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatuak jakinarazo dauenez, gure lurraldeak bizikletaz ibiltzeko bideek osatutako "299 kilometro" ditu daborduko, eta beste "80 kilometro" garapen fasean dagoz. Pradalesek adierazo dauenez, 2003-2016 Bizikleta Plan Zuzendariaren berrikuspenagaz, etorkizunean Bizkaiak, guztira, 827 kilometro izatea aurreikusten da.

Bizkaiko Talde Popularrak Pradalesen "preminazko" agerraldia eskatu dau, plan horren "aurrerapen mailaren" barri emon dagian. Herritar batek abuztuan Aldundiaren aurrean planteau ebazan –eta Pradalesek irailean erantzun ebazan– itaunak jasoz, PP-k jakin gura izan dau, beste gauza batzuen artean, zertan diran plan horretan, hasera batean, eregi behar ziran lehen mailako sarearen "364 kilometroak". 2003. urtean horretatik 54,5 baino ez egozan martxan.

Diputatuak adierazo dauenez, plan horretan oinarrituta Foru Aldundiak "67 milioi euro" inbertidu ditu azken hamabi urte honeetan, hau da, hasera batean aurreikusita egozan 17 milioiak baino askoz gehiago. Kopuru horri, "bidegorri" sarearen kontserbazino beharretan gastau diran beste "2,3 milioi" euroak gehitu behar jakoz.

PP-k eskatuta, Pradalesek Enkarterriko bizikletentzako bideen seinaleztapenean sartu diran hobekuntzak be aitatu ditu. Diputatuak esan dauenez, Herri Lan eta Garraioetako batzordeak joan dan agintaldian emondako agindua betez, Aldundiak automobiletako gidariei bide horreetan txirrindulariak dabilzala jakinarazoteko "77 seinale" instalau ditu eskualde horretan, eta horren kostua "18.218 eurokoa" izan da. Seinale horreek, Enkarterriko foru errepide sareko 77 kilometro hartzen dituen "gomendatutako" zatietan jarri dira. Daborduko seinaleak dituen 37,5 kilometroko beste zati "kontrolauak" be badagoz.

Ganera, Bilbo eta Getxo lotzen dituan itsasadarreko errepidearen – BI-711 izenekoaren – jaubea dan Portu Agintaritzak, "2016ko udabarrian" bizikletentzako bidea eregiteko alternatiben eta kostuen azterlana aurkeztuko dauela esan dau Pradalesek.

GEREDIAGA – ELORRIO BIDE-ARDATZA

Ganera, Pradalesek batzordearen aurrean esan dauenez, Gerediaga-Elorrio autobiarean, Durango-Beasain igarobidearen barruan dagoan 6,4 kilometroko bide-ardatzaren, lanak "aurreikusitako epeak beteten ari dira". Diputatuak adierazo dauenez, "irailaren 30ean obraren %74,64 eginda egoan".

Egunero "12.200 ibilgailu" erakarriko dituan eta "2016ko udan" martxan jarriko dan errepidean bukatu behar diran eginbeharreko nagusiak "Elorrioko lotunearen inguruan lurrak mobiduteko lanak bukatzea, zoladura paketeak egitea eta tuneletako kontrol eta segurtasuneko ekipamendua instaletea" dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

SANTO DOMINGO GAINAREN “BIKOIZKETEA”

Santo Domingoko gainaren bikoizketari buruz galdetuta, 2012ko apirilean BI-631 errepideko zati horren proiektua onartu zanetik egin diran obrak zehaztu ditu Pradalesek. Obretarako aurreikusi zan aurrekontua 26,4 milioi eurokoa izan zan, eta azkenean ezin izan zan egin, trafikoan eukan eraginarengaitik eta ekonomia egoera larrian egoan garai haretarako aurrekontua handia zalako. Bere ordezt, “egoki” iritzi jakon hainbat obra txikiago egiteari, bide segurtasuna hobetzeko. Obra horreen guztien zenbatekoa “5,4 milioitik gorakoa da” daborduko.

Jarduketei jagokenez, hormigoizko hesien bitartez bidea banantzeagaz erlazionauta dagozala adierazo dau Pradalesek. Urte honetan ia errepidearen %80 bananduta egongo da, eta 2016. urtean amaituko dira ganerako guztiak, esan dau. Horretarako hainbat kontratu egin behar dira: Egirletako oinezkoentzako igarobidea amaitzea; beste zati batzuetan hormigoizko hesiak jartea; eta Orueta-Santo Domingo zatian sarbideak eta espaloiak antolatzea. Holan, hilebete gitxi batzuetan bukatuta geratuko da noranzkoen arteko banatze fisikoa Bilboko hegalean dagoan trazau osoan.

Ganera, gasolindegien eta Santo Domingoko gainaren arteko trazauaren zuzenketea idazketa fasean dago. Proiektu horrek errepidearen ahalmena hobetuko dau, 1.291.000 euroko aurrekontua dauka, datorren udabarrian lizitauko da eta 2017an bukatuko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Bizkaia cuenta ya con "299 kilómetros" de vías ciclistas

Bilbao, a 20 de octubre de 2015.

La comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia se ha reunido esta mañana para sustanciar cuatro peticiones de comparecencia, todas ellas solicitadas por el grupo Popular Vizcaíno (PP). En una de ellas, el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha informado de que el Territorio cuenta ya con un total de "299 kilómetros" de vías ciclables y otros "80 kilómetros" se encontrarían en distintas fases de desarrollo. Pradales ha señalado que con la revisión del Plan Director Ciclable 2003-2016 se prevé que, en el futuro, Bizkaia disponga de 827 kilómetros en total.

El grupo Popular Vizcaíno había pedido la comparecencia "urgente" de Pradales para que informase del "grado de avance" de dicho plan. Trasladando a la comisión las cuestiones planteadas por un ciudadano a la Diputación en el mes de agosto –que fueron contestadas según Pradales en septiembre–, el PP quería conocer, entre otras cosas, el estado de ejecución de los "364 kilómetros" de red primaria que dicho plan se marcaba construir en un inicio, de los que en 2003 sólo estaban en marcha 54,5 km.

En virtud de este plan, el diputado ha informado de que la Diputación ha invertido durante estos últimos doce años "67 millones de euros", lo que supone sobrepasar en 17 millones lo que estaba previsto inicialmente. A esta cantidad habría que sumar otros "2,3 millones" gastados en la conservación de esta red de "bidegorris".

A petición del PP, Pradales se ha referido también a las mejoras introducidas en la señalización de las vías ciclistas de Las Encartaciones. Según el diputado, atendiendo a un mandato de la comisión de Obras Públicas y Transportes de la pasada legislatura, la Diputación habría instalado en esta comarca un total de "77 señales" que advierten a los conductores de la existencia de ciclistas, con un coste de "18.218 euros". Esta señalética se ha dispuesto en los denominados tramos "recomendados" que afectan a 77 kilómetros de la red foral de carreteras de Enkarterri. Habría otros tramos "controlados", de 37,5 kilómetros, que ya estarían señalizados.

Asimismo, Pradales ha informado de que la Autoridad Portuaria, propietaria de la carretera que conecta Bilbao y Getxo por la ría –la BI-711– presentará "en la primavera de 2016" un estudio de alternativas y de costes para la construcción de una vía alternativa para ciclistas.

EJE VIARIO GEREDIAGA - ELORRIO

Además, Pradales ha informado a la comisión de que las obras de la autovía Gerediaga - Elorrio, un eje viario de 6,4 kilómetros incluido en el corredor Durango-Beasain, "están cumpliendo los plazos previstos". El diputado ha señalado que "a 30 de septiembre estaba ejecutado el 74,64% de la obra".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Los trabajos pendientes, antes de poner en servicio esta infraestructura “en verano de 2016”, que atraerá diariamente a “12.200 vehículos”, son “fundamentalmente la finalización del movimiento de tierras en la zona del enlace de Elorrio, la ejecución de los diferentes paquetes de firmes y la instalación del equipamiento de control y seguridad de túneles”.

“DESDOBLAMIENTO” DEL ALTO DE SANTO DOMINGO

Preguntado por el desdoblamiento del Alto de Santo Domingo, Pradales ha detallado las obras que se han hecho desde que en abril de 2012 se aprobara el proyecto de este tramo de la carretera BI-631 cuyo presupuesto estimado era de 26,4 millones de euros, y que finalmente no se pudo ejecutar por su afección al tráfico y por su cuantioso presupuesto en plena recesión económica. En sustitución, se entendió "oportuno" realizar una serie de obras de menor alcance económico para mejorar la seguridad vial, cuyo importe sumado supera ya los "5,4 millones de euros".

Entre las actuaciones, Pradales ha señalado las que tienen que ver con la segregación del vial por medio de barreras de hormigón. A lo largo de este año prácticamente el 80% de la calzada estará separada y en 2016 se completará el resto, ha anunciado. Para ello, quedan por materializar una serie de contratos: la culminación de la pasarela peatonal de Egirleta; la instalación de barreras de hormigón en varios tramos más y la reordenación de accesos y aceras en el tramo Orueta-Santo Domingo que completará en unos meses la segregación física entre sentidos en la totalidad del trazado situado en la ladera de Bilbao.

Además, se encuentra en fase de redacción la rectificación del trazado entre las gasolineras y el Alto de Santo Domingo, proyecto que mejorará la capacidad de la carretera con un presupuesto de 1.291.000 euros que se licitará la próxima primavera y que estará finalizado en 2017.